

AURKIBIDEA

1. Laburpena	1
2. Justifikazioa	2
2.1 Ikastetxearen testuingurua	2
2.2 Nolako eskola nahi dugu?	2
2.3 Hezkidetza Planen inpaktua	3
2.4 Zergatik jarraitu Hezkidetza Planekin?	4
2.5 Legedi eta Planak	5
3. Helburuak	5
4. Garapena	7
4.1 Jardueren planifikazioa eta lehentasunak	7
4.2 Aurreikusitako prestakuntza	11
4.2.1 Irakasleen Prestakuntza	11
4.2.2 Ikasleen Eskuhartze Plana	12
4.2.3 Familiak, AZP eta beste Heziketa Agenteen Prestakuntza	15
5. Denboralizazioa	16
6. Partaideak	18
7. Erakunde laguntzaileak	18
8. Aurrekontua edo diru laguntzak	19
9. Ebaluazioa: Hezkidetza Planaren jarraipena eta ebaluazioa	20

HEZKIDETZA PLANA

1. Laburpena

Hernani BHI-n Hezkidetza plana 2013-2014 ikasturtean jarri zen martxan, sexuaren, generoaren eta identitatearen oinarrian hezkuntza parekidea sustatzeko helburuarekin.

2021-2023 ikasturtean jarraipena eman zitzaion proiektuari Bigarren Fasearekin eta Hezkidetza Batzordea ere ezarri zen proiektuari bultzada emanez. Hasiz geroztik hezkidetzalea den ikastetxea izateko aktiboki lanean dihardugu, hezkuntza komunitatearekin, udalarekin eta eragile ezberdinekin elkarlanean. Horretarako, hainbat jarduera, formakuntza eta ekintza komunitario gauzatzen dira.

Ordundik jarduera eta lan ugari egin badira ere, planak aurrera jarraitzea beharrezkotzat jotzen dugu feminismoaren kontrako diskurtsoak eta LGTBIAQ+ fobia areagotzen ari diren honetan. Eta erronka berriei ere leku egiteko beharra ikusten da, hala nola, maskulinitate hegemonikoaren eta hizkuntza sexistaren errepikapenari eta baita nerabeek hainbeste kontsumitzen dituzten sare sozialek erreproduzitzen dituzten jarrera sexistei ere erantzuteko. Oraindik ere irakasleek prestakuntza gehiago behar dute, eta familien inplikazioan ere urrats ugari ditugu emateko.

2. Justifikazioa

2.1 Ikastetxearen testuingurua

Hernani BHI ikastetxe handia da, 850 ikasle eta 100 irakasle inguru ditu urtero. DBH eta Batxilergoa egin daitezke bertan. Horrez gain, Gela Egonkorra eta ZIG Gela ere baditu. Hiru eraikin ditu, hala banatuak: DBHko lehen zikloa eta Gela Egonkorra Santa Barbara deritzon eraikinean, DBH 3 Harrobi eraikinean eta, azkenik, DBH 4, Batxilergoa eta ZI Gela Agustin Iturriaga eraikinean.

D eredua da ikastetxeko hizkuntza eredua, hala, euskara da bertan eguneroko komunikaziorako hizkuntza nagusia.

Hernani BHI ikastetxea Hernani herrian bertan dago, Santa Barbara mendiaren magalean. Ikasle gehienak hernaniarrak dira, baina Urnieta, Astigarraga, Arano eta Goizuetako ikasleren bat ere badugu, batez ere Batxilergoan.

Oro har familien maila soziokulturala klase ertain langilea da eta pozik esan dezakegu komunitatearen, familien eta ikastetxearen arteko harremana positiboa dela.

2.2 Nolako eskola nahi dugu?

2013-2014 ikasturtean Hernani BHI-n Hezkidetza Plana martxan jarri genuen. Plana diseinatzeko gure buruari hurrengo galdera egin genion: **Nolako eskola nahi dugu?** Hausnarketa prozesu luzearen eta aberatsaren ondoren, hurrengo hamar puntu hauek zehaztu genituen:

- 1.- Sexuaren arabera **estereotipoak eta rolak** ezabatzen lagunduko duten harreman parekideak sustatuko dituen.
- 2.- **Curriculumean emakumeen, genero disidenteen zein maskulinitate osasuntsuen jakintzak txertatuko dituen.**
- 3.- **Ikasleen autonomia indartuko.**
- 4.- Ikasle guztiek **hezkuntza-sisteman jarraituko dutela bultzatuko** duena.
- 5.- **Orientazioa eskainiko** duena.
- 6.- Genero **indarkeria, sexismoa eta matxismoa** sorburu duten indarkeria mota guztien **probentzioan eta prebentzioan aktiboki** lan egingo duena.
- 7.- **Emakumeen eta LGTBIAQ+ komunitateko kideen aurkako indarkeria kasuen detekzio goiztiarrean** parte hartuko duena.
- 8.- Aniztasunean, emakumeen, gizonen eta ez-bitarren aukera-berdintasunean zein **sexu identitateen zein joeren errespetuan oinarritutako bizikidetza** ereduak sustatuko dituen.
- 9.- **Espazio segurua** eta orekatua izango dena ikasle zein langile guztientzat, hala, sexu joeragatiko, sexu identitateagatiko edo **genero-identitateagatiko era guztietako bazterkeriatik, jazarpenetik edota erasoetatik babestuko dituen eta babestuta sentiaraziko** dituen.
- 10.- **Ikasleei zein irakasleei beren harremanak** parekidetasunetik, errespetutik, alaitasunetik, askatasunetik... bizitzen lagunduko diona.

2.3 Hezkidetza Planen inpaktua

Lan handia egin dugu dekalogo horrek definitzen duen ikastetxe eredura hurbiltzeko; hau da, gaur egun esan dezakegu Hernani BHI eskola hezkidetzaillea izateko bidean dagoela. Bigarren Faseaz geroztik, gainera, Hernani BHI-k Hezkidetza arduradun bat izatetik, **Hezkidetza Batzordea** izatera pasa da (oraingoz, irakaslez osatua) eta horrek, handia den ikastetxearentzat onura nabarmenak ekarri ditu.

Diseinatutako ikastetxeko Hezkidetza Planen ildotik jardun dugu azken urte guztietan eta horren arrakasta zenbait adierazletan neurtu dezakegu::

- a) Indarkeria matxisten aurrean tolerantzia gutxitu egin da.
- b) Berdintasunaren alde lan egiten duten ikasle talde iraunkorrak ditugu urtero.
- c) Hezkidetzak bere espazio fisikoa du eraikin bakoitzean: **kortxo moreak**.
- d) Irakasleentzako martxan da **Puntu Lila Digitala**, aldizkako buletin digitala
- e) Irakasleentzako eta ikasleentzako **formakuntza** saioak antolatu dira urtero..
- f) **Tutoretza planean** eta **Proiektu Komunitarioak** deritzon arloan hezkidetza modu parte hartzailean lantzen da.
- g) **Data esanguratsuak**: azaroaren 25a, martxoaren 8a edota maiatzaren 17a biziki landu eta ospatzen ditugu Hernanin.
- h) **Herriko eragileen** eta ikastetxearen artean zubiak sortu ditugu.
- i) **Emakumezkoen, genero disidenteen zein maskulinitate osasuntsuen ekarpenak** azalarazteko jarduera asko antolatzen dira mintegi gehienetan.
- j) Hezkidetza Planaren **ebaluazioa** egitean, beti aurrera egitea erabakitzen dugu.

2.4 Zergatik jarraitu Hezkidetza Planekin?

Hezkidetza Planekin aurrerapauso handiek eman diren arren, badugu oraindik gaiari sendo heltzeko arrazoirik, kontuan izanik ere urtero erronka berriak sortzen direla.

- a) Hezkidetza Planen ebaluazioak - ondorioen hausnarketa. Hezkidetza Planen ebaluazioak burutu ondoren, horien inpaktua handia eta positiboa izan dela ikusi badugu ere, zenbait arlotan arreta gehiago jarri behar dugula ikusten dugu; hortaz, hutsuneak berrikusi nahi ditugu eta eragin positiboa izan duten eta izan ditzaketen zenbait dinamika martxan jarri.

- b) Gure errealitatea anitzera egokitzea. Hiru eraikinetan banaturik ditugun DBH eta batxilergoko ikasleez gain, **Gela Egonkorra** eta **ZI gela** ditugu eta desgaitasun fisikoa edo psikikoa duten ikasleen beharrei ere arreta hezkidetzailea eskaintzea beharrezko ikusten dugu, urtero egokituz.
- c) Ikastetxeko proiektu berriak. Ikuspuntu Hezkidetzaile etengabea txertatu nahi dugu ikastetxean garatzen ari diren eta garatuko diren proiektu berrietan.
- d) Curriluma eta programazioak. Emakumeen, genero disidenteen eta maskulitate osasuntsuen ekarpenak programazio guztietan txertatu nahi ditugu.
- e) Pedagogia feministak. Edukiez gain, irakasteko moduan ere jarri nahi dugu fokua, kultura patriarkalaren aurrean gizarte-harreman emantzipatzaileak eraiki ahal izateko.
- f) Tutoretza Plan hezkidetzailea garatzen jarraitu nahi dugu.
- g) Maskulinitate osasuntsuei atea ireki. Nesken saio ez mistoen eragina oso positiboa izan bada ere, mutilei dagokienez, aldaketa nabarmen motelagoa izaten ari da, gatazkatsua eta jarrera erreakzionarioen gorakadarekin, hortaz, maskulitateari ezinbestean heldu behar diogula deritzogu.
- h) Sare sozialak. Harreman birtual osasuntsuen lanketa egin beharra dugu, ikasle, familia zein irakasleekin.
- i) Familiak hezkuntza hezkidetzailearen parte egin nahi ditugu, ikastaroak eskaini, balorazioak partekatu... etxetik zein ikastetxetik lan eginez gero, elkarbizitzan hobetuko dugula sinisten dugu.

2.5 Legedi eta Planak

- 28. Art. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- 23. Art. 3/2007 Legea. 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrekoa.
- 4. Art. 1/2004 Legea. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriena.
- Heziberri 2020. 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa.
- EAE-ko Hezkuntza-Sistamarako II. Hezkidetza-Plana, Berdintasunaren eta Tratu Onaren Bidean 2019-2023.

3. Helburuak

1. **Hezkidetza Planaren** garapenean Hezkuntza-komunitate osoaren **partaidetza bultzatzea**.
2. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten persona guztiei **ohartaraztea hezkidetza ikuspuntua ezinbestekoa dela gure jardunean**.
3. Ikastetxearen inguruan **sexismoari eta estereotipoei dagokienez dugun errealitatea** aztertzea.
4. **Genero-indarkeriako egoerak** (indarkeria horren adierazpen guztiak) **antzematea eta horiei aurrea hartzen laguntzea**.
5. II Hezkidetza Planeko [**8 zutabeak**](#) **programazioetan** txertaturik daudela ziurtatzea. **Emakumeen, genero disidenteen eta maskulinitate osasuntsuen ekarpenen** transmisioa bultzatzea.
6. **Ikastetxearen antolaketa, kudeaketa eta curriculumari** dagozkion dokumentuak genero-ikuspuntutik berrikustea.
7. **Hurrengo urteko helburuak eta jarduerak** planifikatzea.
8. **Hezkidetza Planarekin jarraitzea**.

4. Garapena

4.1 Jardueren planifikazioa eta lehentasunak

Ikasturtea	ZUTABEA	JARDUERA	ARDURADUNA	DENBORA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA: ADIERAZLEAK
24-25	6 4	Elkarbizitza batzordean ikastetxeko bizikidetzan eragina duten kontuen lanketa egin	Zuzendaritza Hezkidetza arduraduna	Ikasturtean zehar	Batzordea, dokumentuak eta bilerak	Bileretako aktak
24-25	4 8	Behatokiko bileretan parte hartu eta sortzen diren elkarbizitza gaitan interbenitu	Zuzendaritza Hezkidetza arduraduna	Ikasturtean zehar	Bilerak	Balorazio bilera Bileretako aktak
24-25	1-8	Hezkidetza jarduerak zehaztu eta UKPan txertatu	Hezkidetza Batzordea Hezkidetza Arduraduna	Ikasturte hasieran	Hezkidetza Plana, UKP	Parte hartzaileen balorazioa
24-25	1 2 5 8	Taldeetan dabilen kideak identifikatu eta haiekin ikasle gehiago aktibatu (bereziki 3. eta 4. mailan)	Hezkidetza Batzordea	Iraila-azaroa	Ikasleen parte-hartzea Bilerak	Hezkidetza Batzordearen balorazio bilera ikasturte amaieran

24-25	4 8	Ikasle eta irakasleen artean ARRETA GUNEAK dokumentua zabald	Hezkidetza Batzordea BAT Taldea	Iraila-urria	Tutoretza saioak Kartela	Tutoretza bileretako aktak Tutoreen balorazioa
24-25	1 3 8	Ikasturteko egun moreak zehaztu, zabald eta ikasleekin sentsibilizazio kanpainak antolatu	Ikasle taldeak Hezkidetza Batzordea	Azaroak 25 Martxoak 8 Maiatzak 17 Liburuaren eguna	Ikasleen parte-hartzea Kartelak Ekintzak	Balorazio bilerak ekintzen ostean: Ikasle taldeena Hezkidetza Batzordearena
24-25	1 3 7	Puntu Lila Digitala birpentsatu eta Kortxo moreak aktibo mantendu	Hezkidetza Batzordea	Ikasturtean zehar	Kartelak Berriak Hitzaildi deialdiak, Liburuak ...	Hezkidetza Batzordeko bilerak Irakasleentzako galdetegia
23-24	1 4 5 8	Autodefentsa Feminista eta Maskulinitate Berriak tailer ez-mistoekin zer egin udalarekin adostu	Hezkidetza Arduraduna Udala	Ikasturtean zehar	Hernaniko Parekidetasun Sailak Beldur Barikekin eskaintzen dituen saioak	Berdintasun Sailekoekin bilera
24-25	1 2 3 7	Irakasleentzako formakuntza (HIRUKI LARROXA)	Hezkidetza Batzordea	Azaroa - abendua	HIRUKI LARROXA elkarteko kideak	Formatzaileen, antolatzailen eta partehartzaileen balorazio galdetegia

24-25	1 2 7 8	Ikasleentzako ikastaro edo lanketak proposatu mailaka	Hezkidetza Batzordea	Ikasturtean zehar	Hezkidetza, Tratu Onak, Armairutik Plazara! eta begirada feminista lantzeko saioak	Egin osteko balorazioa
24-25	4 5	Koordinazio bilerak orientazio mintegiarekin	Hezkidetza Batzordea Orientatzaileak	Ikasturtean zehar	Akta eta memoriak	Parte hartutakoena
24-25	1-8	Hezkidetza Programazioetan - mintegikako jarraipena, ideiak partekatu, laguntza eskaini. Balorazioa eta eguneraketa.	Hezkidetza Batzordea	Ikasturtean zehar	Baliabide anitzak	Hezkidetza Batzordearen balorazioa
24-25	1 2 3 6	Jarduera osagarrietan ikuspegi hezkidetzailea txertatzen lagundu (KULTURA ESKOLA, Hezkidetza ikasgaika...)	Hezkidetza Batzordea	Ikasturtean zehar	Baliabide eta material anitzak	Tutore bileretako aktak Hezkidetza Batzordearen balorazioa
24-25	7	Sexu-Heziketa DBH2n eta ZI gelan	Harremanak Elkarte Udala	Ikasturtean zehar	Formakuntza eta beharrezko bestelako materialak	Formatzaileen eta ikasleen balorazioa

24-25	3 6 8	Kulturarteko Plaza Feministarekin bisita edota jarduera antolatu eta datozen urteotarako finkatu DBH3n eta Batxi1en.	Hezkidetza Batzordea KPFko koordinatzaileak	Ikasturtean zehar	Bisita eta materiala	Formatzaileen, ikasleen eta joandako irakasleen balorazioa
24-25	3	Liburuaren eguna ospatu	Hezkidetza Batzordea Liburutegi arduraduna	Apirilak 23	Liburutegia Ikasleen artelanak	Antolatzaile eta parte hartutako irakasleen balorazioa
24-25	1-8	Jardueren balorazio eta memoriak egin. Hezkidetza plana eguneratu.	Hezkidetza Batzordea Hezkidetza Arduraduna	Ikasturte amaieran	Hezkidetza Plana, UKP, hezkuntzako aplikazioa	Parte hartzaileen balorazioa

4.2 Aurreikusitako prestakuntza

4.2.1 Irakasleen Prestakuntza

DENBORA	HELBURUAK	EDUKIAK	ARDURADUNA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AURREKONTUA
2024-2025 <i>"Hezkidetzatik Pedagogia Feministetara; egungo korapiloak, aukerak eta erronkak"</i> 90 minutuko SAIO 1	• Hezkidetzatik pedagogia feministetarako trantsizioa sustatzea, irakasleei hezkuntza formalean dauden botere- eta pribilegio-egiturak zalantzan jartzeko eta eraldatzeko tresnak emanez. • Hezkuntza-praktikan ikuspegi intersektionalaren integrazioa sustatzea, ikasleak beren generoaren, klasearen, arrazaren, sexu-orientazioaren eta beste identitate-ardatz batzuen arabera jasaten dituzten zapalkuntza- eta diskriminazio-modu ugariak aitortzeko eta jorratzeko.	• Hezkidetzaren eta pedagogia feministen arteko funtsezko desberdintasunak. • Hezkidetzaren mugak, egiturazko eraldaketari dagokionez. • Pedagogia feministen oinarriko printzipioak: desberdintasunak deseraikitzea eta justizia soziala sustatzea. • Intersektionalitaterako sarrera: generoa, klasea, arraza, desgaitasuna, sexu-orientazioa eta beste zapalkuntza-ardatz batzuk. • Identitate anitzen eragina ikasleen hezkuntza-esperientzian.	Hezkidetzatza Batzordea	Irakasleen galdetegia HIRUKI LARROXAKo dinamizatzailerik galdetegia Hezkidetzatza Batzordearen balorazioa	466,78€

2024-2025 <i>"Gizontasuna (eta maskulinitatea k) hezkuntzan; nola esku-hartu mutilekin"</i> 90 minutuko SAIO 1	• Hezkuntza-testuinguruan maskulinitate-praktikei buruzko gogoeta kritikoa sustatzea, eskola-dinamiketan eta ikasleen arteko harremanetan nola eragiten duten aztertuz. • Maskulinitatearen ulermena ikuspegi intersektionaletik sustatzea, beste aldagai batzuen artean, generoak, klaseak, etniak eta sexu-orientazioak identitate maskulinoen eraikuntzan duten eragina aztertuz. • Irakasleak sentsibilizatzea genero-arauak transmititzean eta betikotzean hezkuntza-eragile gisa duten rolari buruz, eta maskulinitate tradizionala indartzen duen curriculum ezkutua zalantzan jartzearen garrantzia azpimarratzea.	• Maskulinitatearen praktika arautzaileak eskolan • Maskulinitatea vs. Gizontasuna. • Maskulinitatea ikuspegi intersektionaletik. • Maskulinitatea, berdinen arteko harremanak eta eskola-jazarpena. • Hezkuntza eragileak eta curriculum ezkutua. • Egunerokorako gakoak: behaketa, hausnarketa, kritika eta lanketa posibleak. • Mutilekin lanketa zehatzak egiteko baliabide pedagogikoak.	Hezkidetza Batzordea	Irakasleen galdetegia HIRUKI LARROXAKo dinamizatzailer n galdetegia Hezkidetza Batzordearen balorazioa	466,78€
--	--	---	-----------------------------	---	----------------

4.2.2 Ikasleen Eskuhartze Plana

DENBORA	MAILA	HELBURUAK	EDUKIAK	ARDURADUNA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AURREKONTUA
2024-2025 tutoretzetako hainbat saio ikasturte hasieran	DBH 1	Tratu Onak lantzea Kohesioa indartzea	auto-ezagutza errespetua elkar-zaintza harreman osasuntsuak parekidetasuna	Orientatzailea Hezkidetza Tutoreak	Ikasleen balorazioa Tutoreen balorazioa	Doakoa
2024-2025 2 orduko saio 1	DBH 1	Heziketa menstruala jasotzea Hilekoaren zikloa ezagutuz, beldurrik gabe eta naturaltasunez bizitzen laguntzea	emakumeen* gorputz atal garrantzitsuenen funtzionamendu eta ezaugarriak produktu higieniko alternatibo eta berrerabilgarriak zikloko faseak mitoak	Askazi elkarte Hezkidetza	Ikasleen balorazioa Dinamizatzailea ren balorazioa Irakasleen balorazioa	726 €
2024-2025 2 orduko 2 saio	DBH 2	Sexu heziketa	gorputzak edertasun kanonak desirak, aurreiritziak harreman osasuntsuak arriskuak	Harremanak elkarte	Ikasleen balorazioa Hezitzaileen balorazioa	Udalak ordaindua (Hezkuntza arloa)

2024-2025 "Porno?" -SEXU INDARKERIARI ETA DESIOARI BUELTA BAT saio 1 taldeko	DBH 3	Sexu heziketa	Porno mainstreamaren aurrean sexu heziketa osasuntsua eta indarkeriarik gabea eskaintzea	Binomio Kultura Eskola	Ikasleen balorazioa Hezitzaileen balorazioa	7.700€ Foru Aldundiak % 90 ordaindua
2024-2025 SEXBERDINAK antzerkia	DBH 4	Sexu heziketa	Gorputz anitzen bizipen afektibo sexualak ezagutzea, norbere paralisi, beldur, amets eta ilusio ezberdinak ditugula erakusteko.	Eskolatik Antzokira egitasmoa	Ikasleen eta irakasleen balorazioa	5€ ikasleko (132 ikasle eta 10 irakasle), 700€ inguru
AUTODEFENTSA FEMINISTA 2 orduko tailerra neskentzat*				Emagin		300 € inguru (udalak ordainduta)
2024-2025 PROKOn hainbat saio	DBH 1-2-3-4 Batxi 1-2	Armairutik Plazara UDak	DBH 1 - Gorputza(k) DBH 2 - Identitatea(k) DBH 3 - Desira(k) DBH 4 - Justizia Soziala Batxi1 - Ahalduntzea Batxi 2 - Memoria	Orientatzailea Hezkidetza Tutoreak	Ikasleen balorazioa Tutoreen balorazioa	Doakoa

2024-2025 2 orduko 2 saio	ZIG	Sexu heziketa	osasuna sentimenduak gorputzak harreman osasuntsuak	Harremanak elkartea	Ikasleen balorazioa Hezitzaileen balorazioa	Udalak ordaindua (Hezkuntza arloak)
2024-2025 2 orduko 1 saio	Batxi 2	Satiro antzezlan eta solasaldia		Xanti Agirrezabala	Ikasleen, irakasleen, Xantiren eta Hezkidetza Batzordearen balorazioa	1430€ udalak ordainduta

4.2.3 Familiak, AZP eta beste Heziketa Agenteen Prestakuntza

DENBORA	HELBURUAK	EDUKIAK	ARDURADUN A	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AURREKONTUA
2024-2025	DBH 2ko zein ZI gelako familiei ikasleek jasotako formakutzaren deboluzioa egitea	gorputzak edertasun kanonak desirak, aurreiritziak harreman osasuntsuak arriskuak	Harremanak Elkarteko hezitzaileak	Gurasoen balorazioa	Udalak ordaindua

5. Denbormalizazioa

JARDUERA	23/24	ira	urr	aza	abe	urt	ots	mar	api	mai	eka
1. Elkarbizitza batzordean ikastetxeko bizikidetzan eragina duten kontuen lanketa egin		x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
2. Behatokiko bileretan parte hartu eta sortzen diren elkarbizitza gaietan interbenitu		x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
3. Hezkidetza jarduerak zehaztu eta UKPan txertatu		x	x								
4. Taldeetan dabiltzan ikasle eta kideak identifikatu eta haiekin ikasle gehiago aktibatu (bereziki 3. eta 4. mailan)		x	x	x							
5. Ikasle eta irakasleen artean ARRETA GUNEA dokumentua zabaltu		x	x								
6. Ikasturteko egun moreak zehaztu, zabaltu eta ikasleekin sentsibilizazio kanpainak antolatu				x			x	x	x	x	
7. Puntu Lila Digitala birpentsatu eta Kortxo moreak aktibo mantendu		x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
8. Autodefentsa Feminista eta Maskulinitate Berriak tailer ez-mistoekin zer egin udalarekin adostu	x								x		
9. Irakasleentzako fromakuntza (HIRUKI LARROXA)				x	x						

10. Ikasleentzako ikastaro edo lanketak proposatu mailaka		x	x	x	x	x	x	x			
11. Koordinazio bilerak orientazio mintegiarekin		x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
12. Hezkidetza Programazioetan - mintegikako jarraipena, ideiak partekatu, laguntza eskaini. Balorazioa eta eguneraketa.		x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
13. Jarduera osagarrietan ikuspegi hezkidetzaila txertatzen lagundu (KULTURA ESKOLA, Hezkidetza ikasgaika...)		x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
14. Sexu-Heziketa DBH2n eta ZI gelan		x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
15. Kulturarteko Plaza Feministarekin bisita edota jarduera antolatu eta datozen urteotarako finkatu DBH3n eta Batxi1en.		x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
16. Liburuaren eguna ospatu								x	x		
17. Jardueren balorazio eta memoriak egin. Hezkidetza plana eguneratu.										x	x

6. Partaideak

Hezkidetza batzordeko kideak 2024-2025 ikasturtean:

Nora Alejos (hezkidetza arduraduna), Oihana Muxika, Andrea Aristegi eta Itsaso Berasategi

Bigarren Faseaz geroztik, Hernani BHI-k Hezkidetza arduradun bat izatetik, **Hezkidetza Batzordea** izatera pasa da (oraingoz, irakaslez osatua) eta honek, handia den ikastetxearentzat onura nabarmenak ekarri ditu

- Hiru erakinetan kide erreferenteak izateko eta bertako ikasleekin harreman zuzena izateko aukera eskaintzen du.
- Hezkidetza Batzordeko kide izateaz gain, mintegiburu edota tutore izanez gero, eremu horietako bileretan ere hezkidetzako kide erreferentea egongo da.
- Kide batek Bizikidetza Batzordean ordezkari izateko aukera du eta ikastetxeko eraldaketan parte hartzen du Hezkidetza Batzordeak ere.
- Proposamenak pertsona bakarrak baino, taldean partekatu etaosatzen dira, erabakiak sendotasun handiagoz hartuz.
- Ekintzak dinamizatzeko esku zein buru gehiago gara.
- Kanpo formakuntzetan parte-hartzeko eta bertan ikasitakoa partekatzeoko aukera gehiago dugu.

Horrez gain, **irakasle on artean** ere Hezkidetza Sarea osatu dugu, mintegika kide bat lotuz disziplina guztietara iritsi ahal izateko.

7. Erakunde laguntzaileak

- Hiruki Larroxa
- Hernaniko Udala
- Kulturarteko Plaza Feminista
- Emagin
- Harremanak
- Askazi elkarte
- Kultura Eskola
- Hernani BHI ikasle mugimendua (IKAMA, IA, Matxinsalto...)

8. Aurrekontua edo diru laguntzak

JARDUERA		OHARRA	AURREKONTUA
Irakasleen formakuntza	HIRUKI LARROXA <i>Hezkidetzatik Pedagogia Feministetara; egungo korapiloak, aukerak eta erronkak</i>	466,78 € udala berdintasuna	
	<i>"Gizentasuna (eta maskulinitateak) hezkuntzan; nola esku-hartu mutilekin"</i>	466,78 € udala berdintasuna	
	FORMAZIO ETA BIDE LAGUNTZA PROZESUA Hiruki Larroxaren aholkularitza		0 €
DBH 1	DBH 1 - Tratu Onak		0 €
	Heziketa menstrual - Askazi Elkartea	726 € udala berdintasuna	
DBH 2	Sexu Heziketa - Harremanak Elkartea	udalak ordainduta (hezkuntza arloa)	
DBH 3	Sexu Heziketa - Binomio (Kultura Eskola)	7.700€ Foru Aldundiak % 90 ordaindua	770 €
DBH 4	Sexu Heziketa - Sexberdinak (Eskolatik Antzokira egitasmoa)	700 € (5€ ikasleko, 132 ikasle + irakasleak) . Udalak ordaindua	
DBH 4	Autodefentsa Feminista (2 orduko saioa neskontzat*)	300€ udalak ordainduta	
ZI GELA	Sexu Heziketa - Harremanak Elkartea	udalak ordainduta	
BATXI 2	Satiro antzezlanak (ondoren ikasteletxean lanketa irakasleekin)	1430 € udalak ordainduta	

9. Ebaluazioa: Hezkidetza Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Jarduera	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
Hezkidetza jarduerak zehaztu eta UKPan txertatu	Irailean-urrian	Hezkidetza Batzordean	Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Aurrekontua zein den jakiteak lagunduko luke.
Taldeetan dabilzan ikasle eta kideak identifikatu eta haiekin ikasle gehiago aktibatu (bereziki 3. eta 4. mailan)	Lehen hiruhilekoan	Hezkidetza Batzordean	Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Ordu gehiago.
Ikasle eta irakasleen artean ARRETA GUNEAK dokumentua zabaldu	Irailean	Tutoretza bileretako aktak Tutoreen balorazioa	Hezkidetza Batzordeak Tutoreek	Eginda	Erabilgarritasuna baloratu beharko da.
Ikasturteko egun moreak zehaztu, zabaldu eta ikasleekin sentsibilizazio kanpainak antolatu	Irailean eta ikasturtean zehar	Balorazio bilerak ekintzen ostean: Ikasle taldeak, Hezkidetza Batzordea	Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Elkarlanerako denbora falta da.

Puntu Lila Digitala birpentsatu eta Kortxo moreak aktibo mantendu	Ikasturtean zehar	Hezkidetza Batzordeko bilerak Irakasleen galdetegia	Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Erabilgarritasuna baloratu beharko da.
Autodefentsa Feminista eta Maskulinitate Berriak tailer ez-mistoeekin zer egin udalarekin adostu	Lehen hiruhilekoan	Berdintasun Sailekoekin bilera	Ikasleek, dinamizatzailleak eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Koordinazioa hobetu.
Irakasleentzako fromakuntza (HIRUKI LARROXA)	Lehen hiruhilekoan	Formatzaile, antolatzaile eta parte hartzaileen balorazio galdetegiak	Dinamizatzailleak, klaustroak, dinamizatzailleak eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Ondo baloratu da.
Ikasleentzako ikastaro edo lanketak proposatu mailaka	Irailean	Egin osteko balorazioa	Ikasleek, dinamizatzailleak eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Ondo baloratu dira.
Koordinazio bilerak orientazio mintegiarekin	Ikasturte amaieran	Parte hartutakoena	Orientatzailleak eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Ez daude sistematizaturik.
Hezkidetza Programazioetan - mintegikako	Ikasturtean zehar	Hezkidetza Batzordearen balorazioa	Hezkidetza Batzordeak	Ez da egin	Programazio berriak asentatzean, nola egin erabaki beharko

jarraipena, ideiak partekatu, laguntza eskaini. Balorazioa eta eguneraketa.					da.
Jarduera osagarrietan ikuspegi hezkidetzalea txertatzen lagundu (KULTURA ESKOLA, Hezkidetza ikasgaika...)	Irailean/urrian	Tutore bileretako aktak Hezkidetza Batzordearen balorazioa	Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Mintegietara hurbiltzeko denbora falta.
Sexu-Heziketa DBH2n eta ZI gelan	Lehen eta bigarren hiru hilekoetan	Formatzaileen eta ikasleen balorazioa	Ikasleek, familiek, dinamizatzaileek eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Oso ondo baloratu da.
Kulturarteko Plaza Feministarekin bisita edota jarduera antolatu eta datozen urteotarako finkatu DBH3n eta Batxi1en.	Irailean	Formatzaile, ikasle eta joandako irakasleen balorazioa	Ikasleek, joandako irakasleek, dinamizatzaileek eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Ondo baloratu da. Parte hartzaileagoa izan dadin eskatu diegu.
Liburuaren eguna ospatu	Apirilean	Antolatzaile eta parte hartutako irakasleen balorazioa	Liburutegiko arduradunek, ikasleek, Hezkidetza Batzordeak	Aurten ez da egin	Koordinazioa hobetu.

Jardueren balorazio eta memoriak egin.	Egin ostean eta ikasturte amaieran	Parte hartzaileen balorazioa	Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Denbora falta.
Hezkidetza plana eguneratu.	Ikasturte hasieran	Hezkidetza Batzordean	Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Epe luzerako helburuak zehaztu eta plan txukun bat diseinatzeko, debora dirua eta bidelaguntza beharko genituzke.

JARDUERA OSAGARRIAK ETA IKASLEEN BESTE FORMAKUNTZA BATZUK					
Jarduera Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
DBH 1 Tratu Onak	Egin ostean	Ikasleen balorazioa Tutoreen balorazioa	Tutoreek eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Ez dute talde guztiek egin. UDak bideratzeko arduradun bat egotea proposatu da.
DBH 1 Heziketa menstrualak Askazi Elkartea	Egin ostean	Ikasleen balorazioa Dinamizatzailaren balorazioa Irakasleen balorazioa	Ikasleek, irakasleek, dinamizatzailak eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Hilekoarekin lan egiten duen beste elkarte bat ezagutu nahi da.

DBH 3 Sexu Heziketa - Binomio (Kultura Eskola)	Egin ostean	Ikasleen balorazioa Hezitzaileen balorazioa	Ikasleak, dinamitzatzaileak eta Hezkidetza Batzordea	Eginda	Ikastetxeak espazio falta du antzezlan eta emanaldietarako.
DBH 4 Sexu Heziketa - Sexberdinak (Eskolatik Antzokira egitasmoa)	Egin ostean	Ikasleen eta irakasleen balorazioa	Ikasleak, irakasleak, antzezleak eta Hezkidetza Batzordea	Eginda	Ondo baloratu da.
DBH - PROKO ARMAIRUTIK PLAZARA! Unitate didaktikoak	Egin ostean	Ikasleen balorazioa Tutoreen balorazioa	Tutoreek eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Ez dute talde guztiek egin. UDak bideratzeko arduradun bat egotea proposatu da.
BATXI 2 Satiro	Ikusi ostean	Ikasleen eta irakasleen balorazioa	Ikasleak, irakasleak, antzezleak eta Hezkidetza Batzordea	Eginda	Mugikorren erabilera ahozko dinamika batera aldatzea proposatu zaie.
DBH 2ko zein ZI gelako familiei ikasleek jasotako formakutzaren deboluzioa egitea	Egin ostean	Gurasoen balorazioa	Familiek eta Hezkidetza Batzordeak	Eginda	Ondo baloratu da.